

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroako Gobernuak babestutako 547 etxebizitza ikuskatu zituen 2017an horien helburu soziala bermatzeko

Hurrengo Kontrol Planak hutsik dauden etxebizitza libreak barne hartuko ditu

Astelehena, 2018.eko apirilak 9

Eskubide Sozialen Departamentuak, Foruzaingoaren laguntzaz, 547 etxebizitza babestutan inor bizi ote zen egiaztatu zuen 2017an, horien helburu soziala bermatzeko xedez. Hurrengo Kontrol Planean, Eskubide Sozialen Departamentuak hutsik dauden etxebizitza librean ikuskapena egitea aurreikusi du.

Ekintza horiek guztiak egun indarrean dagoen ikuskapen-planari atxikita daude, etxebizitza babestuak dagokien helburu sozial nagusia betetzen ari direla bermatzeko asmoz: horietan jendea benetan bizi ote den eta familia-unitate banaren bizitokiak ote diren. Helburua, etxebizitza babestuetan bizimodua egiteko dagoen betebeharrak kontzientziaztea da, zigorra jaso dezakeen etxebizitza hutsik mantentzearen aldeko joeraren alternatiba gisa, Nasuvinsaren Alokairu-Poltsaren bitartez egindako alokairuak balizko kalteetatik eta ordainketarik ezatik babesteko berme osoa eskaintzen duela gogoratuz. 2017ko eta 2018ko kontrol-ekintzetan, 2013an eta 2014an esleitutako etxebizitzak ikuskatzen ari dira nagusiki.

Guztira, 547 ikuskapen egin ziren 2017an etxebizitza babestuetan inor bizi ote zen egiaztatzeko, eta horien ondorioz, 33 zigor-espeditente ireki ziren, horietatik 14 artxibatuta gelditu direlarik. 19 kasutan zigorrek ezarri dira, 18 arau-hauste larriengatik, 3.001 euroko zigorrek tarteko, eta bat arau-hauste aringarrik, 300 euroko zigorrarekin.

Horrela, ohiko bizitokiak ez diren etxebizitzaren portzentajea benetan txikia (% 3,5etik beheitikoa) eta 2016koa baino murriztagoa dela frogatu ahal izan da, izan ere, 2016an, etxebizitza babestuetan inor bizi ote zen egiaztatzeko 450 ikuskapen egin ziren, eta horien ondorioz, 26 pertsonaren (% 5,77) aurkako zigorrek ezarri ziren.

2018rako, antzeko ikuskapen kopurua egitea aurreikusi da, eta ura, gasa eta elektrizitatearen kontsumoari buruzko datuak emateko eskaerak bidaltzen hasi dira dagoeneko, etxebizitzetan benetan jendea bizi ote den egiaztatzeko beste proba batzuekin batera. Zenbait kasutan, ikuskapena Foruzaingoaren bisitaren bitartez gauza daiteke.

Hutsik dauden etxebizitza libreak

Hutsik dauden etxebizitzak zehaztea da hurrengo Kontrol Planean txertatu beharreko helburuetako bat, ez soilik etxebizitza babestuak, baita etxebizitza libreak ere. Betekizun hau, Gobernu Zentralak 24/2013 Foru

Legeari ezarritako inkonstituzionaltasun-errekurtoaren zatirik handiena baztertuz, Auzitegi Konstituzionalak emandako otsailaren 22ko 16/2018 Epaia ondu da. Hutsik dauden etxebizitzetako zerga handiagoa ezarri ahal diete toki erakundeek, Toki Ogasunei buruzko Foru Legean arautu denez: zenbat eta denbora gehiago egin hutsik, orduan eta zerga-karga handiagoa.

Pertsona juridikoen kasuan (finantza-erakundeak, merkataritza-sozietateak), zigorrak ezartzeko aukera ere aurreikusi da, etxebizitza bi urtetik gorako epean hutsik egon baldin bada.